


ITZULIA: GASTEIZKO ERAZTUN BERDEA



6




Biodibertsitatea, landa mundua eta hiri garapena aurki genitzake Gasteizko herritarrek maizen bisitatzeko ibilbide honetan. Arabako hiriburuak arrakasta handiz berreskuratu du bere eraztun berdea, sari eta aintzatespenen bandera ontzia, tartean Europako Hiri Berdearen izendapena, Gasteiz garapen orekatu eta iraunkorraren aldeko berreskurapen eredu gisa ezartzen delarik.


Eraztun berdea ibilbide eta paseoz betetako 79 kilometro baino gehiagok osatzen dute, baina bide honetan hiriburu "berdea" inguratu ahalko duzu, 30 kilometro inguru dituen ibilbidean. Zure esku dago: ibilbide osoa egitea, hiria aldiriarekin lotzen duten 5 parkeetako batean galtzea edo tartea egun desberdinetan egitea. Harrigarria irudituko zaizu zein azkar murgil zaitezkeen balio pasaijistikoko altuko eta bizitzaz betetako parajeetan.



Gainera, hiria zeharkatzen duten bidegorrien sareko edozein puntutatik joan zaitezke Gasteizko eratzun berdearen itzulira eta Arabako hiria edozein norabidetan zeharkatu, ibilbide hau markatzen duten argibideak jarraituz. Gure proposamena honakoa da: ibilbidea Ataria naturaren interpretazio zentroan hasia, Salburuko parkean, eta iparralderantz jarraitzea, Zadorra ibairantz; hala, Gasteiz zaintzen duten parke eta hezeguneak ezagutu ahalko dituzu, honako ordena honetan: Salburua-Zadorra-Zabalgana-Armentia-Olarizu-Salburua. Altxor hau deskubritzeko hamaika moduetako bat baino ez da.

0 km	"Ataria" zentrotik sarrera nagusia. Hartu "Zadorrarantz" doan ibilbidea, zure ezkerrean, interpretazio zentroaren parean jarrita. Fernando Buesa Arena pabiloia inguratuko dugu, zure ezkerrean, orain Baskoniaren kirol egoitzako aparkalekuaren buru den kupula handiaren ondoan.
0,8 km	Bidea biribilgune txiki batean amaitzen da. Errepidea oinezkoen bidetik gurutzatu duzunean, ibilbideak eskuinean jarraitzen duela ikusiko duzu, Dulantzi ibaiaren paraleloan. Hartu ibilbide hori eta jarraitu zuzen, eratzun berdearen mugarriak jarraituz.
2,1 km	Kontuz. Bergarako Atean errepidea gurutzatu beharko duzu. Pare-parean, eratzun berdearen itzulia markatzen duen baliza batek ibilbidea berretsiko dizu. Jarraitu norabide horretan.
2,5 km	Gurutzatu eskuinera. Zeharkatu Zadorra ibaia eta jarraitu zuzen. Pasabide laranja baino lehen, jaitsi eskuinera eta, behean zaudenean, jarraitu norabide horretan 200 metro inguru.
3 km	Hartu ezkerreko bidea eta, ibaiaren ubidea pasatu duzunean, berriz ere bira egin ezkerrean. Pasabidearen azpitik pasatu ondoren, jarraitu pista mendebaldera, Zabalganerantz.  Kontuz! Uholdeak dauden sasoietan, pasabide hau urez gainezka egon daiteke.

4 km	Bidegurutzea. Eratzun berdea markatzen duen poste bat aurkituko duzu zuhaitz enbor baten ondoan. Bi aukera eskaintzen ditu Zabalganeko bidean aurrera jarraitzeko. Hartu eskuineko bidea eta Gamarra herrian sartuko zara. Ezkerreko kaletik sartu, N-240 errepidean amaitu arte. Zuzen jarraituko bazenu, eskailerak dituen bidegurutze batera iritsiko zinateke.
4,2 km	Beste poste bat ikusiko duzu. Jarraitu espaloitik ezkererantz.
4,4 km	Erretegia eta Zadorra ibaiaren gaineko zubia pasatu ondoren, oinezkoen pasabide batera iritsiko zara, eskuinean. Kontu handiz gurutzatu errepidea eta hartu bidegorria.
4,6 km	Bizikleten bidea atzean utzi eta hartu zuhaitzen, ibaiaren eta bidegorriaren artean doan legarrezko pista.



ZADORRA

Zadorra Gasteizko ibai nagusia eta Arabako emaritsuenetako bat da. Entzia mendilerroaren inguruan jaiotzen da, ura eramaten du Uribarri Ganboako urtegiara eta Arabako hiriburua inguratzen du **14 kilometrotan** zehar, Ebrorantz abiatu baino lehen.


Azken urteetan lan handiak egin dira industria jardueraz eta baratz edo labore txikiz okupatutako ibaiertzak berreskuratu eta egokitzeko. Berreskuratze prozesu hori oraindik martxan dagoen arren, ibai korridore honek ingurumen aldetik duen indarrari esker, Espazio Babestuen 2000 Natura Sarearen barruan **Batasunaren Garrantzizko Leku** izendatu dute. Izan ere, Zadorrari balio ekologiko handiko hainbat bazter daude eta desagertzeko arrisku larriak dauden hainbat espezie bertan bizi dira oraindik. Urteko edozein garaitan ibaiertzetan gora eta behera ibiltze hutsa izugarritzko plazerra da. Seguru "green" ibilbideko irudi bukolikoenetako bat ikusi ahalko duzula.




ZABALGANA

Zabalganeko parkea da beharbada Gasteizko eratzun berdearen filosofia ondoen sintetizatzen duen gerriko berdeko kokalekua. Duela gutxira arte legar abandonatuz betetako gunea izan zen; gero, zaharberritu egin zen. **Parke** honek **58 hektarea** dauzka eta garrantzi ekologiko nabarmena duen erkametz baso naturala dago bertan.

Zabalgana **uharte berde** izenez ezagutzen da, inguruan nekazaritzako eremuak, egoitza inguruak eta industrialdeak dauzkala. Erkametz gain, larreetan astigarrak, elorri zuriak eta ipuruak hedatzen dira, baita baso txikiak ere. Halaber, azeri, unxi, erbinude, zozo eta gaueko harrapariek nahiz hontz ertainek bizitza ematen diote uharte baso honi.

6,4 km	Bira egin eskuinera. Hiru aho dituen tunel txiki batetik eta Abetxukuko zubi berriaren azpitik pasatuko zara.
7,2 km	Jarraitu zuzen ezkerrean dagoen bidetik. N-622 errepidearen azpitik pasatuko zara.
7,5 km	 Adi! Biribilgune txiki bat igaro ondoren, jarraitu metro batzuk bidegorritik, baina adi eskuinera. Malda txikia duen pista bat igo, eratzun berdearen ibilbidera bueltatuz. Aurkitzeko, bilatu zure atzean dagoen mugarria.
7,8 km	Pistak Alibarra kaleko bidegorriaren paraleloan jarraitzen du. Zure eskuinera Arabako Lautadaren ikuspegi zoragarria duzu. Zure ezkerrean, Ibaiondo auzoko etxebizitza modernoak. Gurutzatu lhurre herrira doan errepidea. Jarraitu zuzen legarrezko pista.
8,7 km	Zure eskuinera laboreetara ematen duen behatoki txiki bat ikusi ahalko duzu. Bertan, Atxa mendixkako aztarnategi arkeologikoa dago.
9,9 km	Gobeo herrira iritsiko zara. Gurutzatu errepidea eta jarraitu herriaren barruko galtzadatik, zuzen. Eliza eskuinaldean utziko duzu.

10 km	Herriaren amaieran, hartu eskuineko bidea. Atzealdean azukre lantegi zaharreko tximinia ikus daiteke.
10,8 km	Pistatik jaitsiko gara, errepidearen azpitik
11,1 km	Bidegurutzea. Pistatik zuzen jarraituko dugu.
11,5 km	Trenbidea zubiaren gaineratik pasatu ondoren, eskuineko bidetik jaitsiko gara.
12 km	Pare bat bidegurutzetan zuzen jarraitu ondoren, errepidea gurutzatu eta Zabalzana parkerako sarrera aurkituko dugu, parean. Eskuineko bidetik gora egin eta parkean sartuko gara, eraztun berdeko markak jarraituz.
13,8 km	Bidegurutzea. Mariturriko bulebarrera garamatzen ezkerreko bidetik jaitsiko gara eta, han, eskuinera jarraituko dugu, bulebarretik.
14,2 km	Bira egin ezkerrean eta gurutzatu errepidea. Berriz ere eskuinera jo eta kale hori gurutzatuko dugu. Eratzun berdearen oharra jarraituz, eraikin gorri eta beltz bat inguratuko dugu. Etxebizitzen artean aisialdi gune bat zeharkatzen duen legarrezko pista bat aurkituko duzu.
14,5 km	Armentia kalea. N-102 errepidea gurutzatzeko, ezkerrean bira egin beharko duzu, erdibitzailean pasabide txiki bat eta semaforoa dauzkan bidegurutze batera iritsi arte. Beste espaloian metro batzuk egingo ditugu eskuinera, eta ezkerrean dagoen lehenengo bidea hartuko dugu. Adi erreparatu eratzun berdearen seinaleei. "Armentia" norabidea.
15,3 km	Eraztun berdeko oharra jarraituta, A-4101ean amaitzen den errepide zaharra igoko dugu. Ezkerrean bira egin eta errepidean kilometro bat baino gutxiago ibili beharko gara.  Kontuz! Bideak norabide bikoitza dauka.



Basilica de Armentia.





UREZKO ERAZTUNA



Gasteizen lur azpian kuaternarioko akuifero garrantzitsu bat dago eta 2.500 urte baino gehiago dituzten haitzen artean aurkitzen da. Erreka eta ibaiek erreserba estrategikoak ematen dizkiote hiriari, eta, era berean, Gasteizko eraztun berdearen lotura nagusia dira, Zadorra Ibaiak zuzentzen duen sare honen bidez parke, baso, nekazaritza sail, egoitza gunee eta industrialdeak lotzen dituela.

Betoñu, Arkauti, Duranzarra eta Larreganako urmaelak, Salburuan, beren aberastasun biologikoagatik nabarmentzen dira, hiriaren erdigunetik minutu gutxira, eraztun berdean. Zabalganak, Armentia basoak edo Olarizuko maldek Arabako hiriburuaren gerriko berdea ixten dute. Halaber, ezin dugu ahaztu beste bi parke hauek ere batuko direla: Errekaleor eta Berroztegieta, epe luzeagoan. Zadorrako bazter berreskuratuek beharbada natura eta hiria josten dituen hauspo garrantzitsu honen irudirik bukolikoenetakoa osatzen dute.



ARMENTIA

San Prudentzio patroï arabarraren egoitza izateaz gain, Gasteiz udalerrian balio handienetakoa duen espazio natural baten ataria da Armentia. Espazio hori **Gasteizko mendiak** dira. Hiriaren, landa gunearen eta mendi sistemaren arteko lotura funtzio horrek aparteko balioa ematen dio Armentia bakoari. Harrituta geratuko zara 100 hektareatik gorako zuhaitz landa indartsuak ikustean, erkametzat nagusi den arren, astigarrak, txilarrak, elorri beltzak eta masustak ere badaudela. Gunerik gorenetan pago eta gorostiak ugaritzen dira eta, erreketatik hurbil, aldiz, lizar eta hurritzak ikusi ahalko dituzu. Landaretza aberats hau kategorian, basurde eta hegazti txiki ugariaren babesleku da, ibilbide zirrargarri hau egitean entzun ahalko duzun moduan.

15,9 km

Errepidetik irtengo gara. Ezkerrera, Armentia bakoari sarrera ikusiko duzu, mahaia eta iturria ere badituela, atsedena hartu ahal izateko. Jarraitu eskuinera dagoen lehenengo bidetik.

16,5 km




Bidegurutzean bira egin ezkerrera. Jarraitu Armentia basoa zeharkatuz, betiere eratzun berdearen itzuliko seinaleak jarraituta.

18,7 km

Armentia herrira iritsiko zara. Bira egin eskuinera eta jarraitu zuzen Armentia herriko iturrira iritsi arte. Bertan ezkerrera bira egin. Herriaren goiko aldera eta San Prudentzioren monumentura eramango zaituzten oharak jarraitu. Eskuinera bira egin Santuaren ibilbidetik eta, lehenengo bidegurutzean, eskuinera jo, Maite Zuñiga kaleetik bidegorria jarraituz. Jarraitu zuzen tarte honetan ikusten dituzun bidegurutzeetan.

21 km

Bidegorriak biribilgune txiki bat zeharkatzen du. Eskuinera, atzealdean, Aretxabaleta ikusi ahalko duzu. Jarraitu zuzen Zumabide eta Iturritxu kaleetako bidegorritik.

22 km	Iturritxuko hiru dorre pasatu ondoren (zure ezkerrera), bira egin eskuinera, Olarizuko parkera doan bidea hartzeko.
22,7 km	Bidegurutzea. Hartu ezkerreko bidea. Eskuineko ibilbidea hartuko bazenu, Olarizuko ingurumen parkera iritsiko zinateke. Bazter ezazu bide hori eta jarraitu ezkerrean dagoen asfaltozko bidetik.  Kontuz! Trafiko handia ez duen arren, bidean ibilgailuak aurki ditzakegu eta ibiltari asko ibiltzen dira bertatik. Kontuz ibili.
23,4 km	Olarizuko etxaldea, Ingurumen Gaietarako Ikastegiaren egoitza. Ezkerraldean utziko duzu etxaldea eta parez pare jarraituko duzu legarrezko pistatik zure norabide berean.
24,5 km	Bidegurutzea. Jarraibideak bete ondoren, A-2130 errepidearen bidegurutzera iritsiko zara.  Kontuz! Gurutzatu galtzada eta parean pista bat ikusiko duzu, ezkerraldean Vasco-Navarro trenaren geltoki zaharra inguratzen duelarik. Hartu ezkerreko bidea.
24,8 km	Bidea bitan banatzen da. Hartu eskuineko pista.
25,5 km	Errekaleor kaleko bidegurutzea. Jarraitu metro batzuk eta gurutzatu Izarbenta kalea.  Kontuz! Oinezkoen pasabidea gurutzatzean, legar horiko pista oso hurbil izango duzu.
26,1 km	Trenbidearen gaineko zubia. Zeharkatu ibiltokia eta, jaitsi bezain pronto, jarraitu metro batzuk Florida kaletik. Bigarren biribilgunera iritsi baino lehen, gurutzatu kalea ezkerrera, oinezkoen pasabidearen ostean zuzen jarraitzen duen legarrezko pista hartzeko.



Bisoi europarra.



OLARIZU

Hiriko parke nagusia da. Hiriburutik hurbil dagoenez, egunero gasteiztar ugari hurbiltzen dira inguruko herriak lotzen dituzten bidezidor anitzen artean paseatu edo haren landak gozatzera. Duela urte batzuk, **Ingurumen Gaietarako Ikastegiak** egoitza jarri zuen bertan, Olarizuko etxaldean. Eraikin hau nekazaritza eta abeltzaintzarako erabiltzen zen duela ez asko. Halaber, erakusketa eta tailerren kokaleku den eraikin hau, Ataria zentroarekin batera, Gasteizko eratzun berdearen informazio gune nagusietako bat da.

Atzealdean, Olarizuko Gurutzearen muino txikia dago eta bertan Arabako hiriburuaren ikuspegi panoramiko ederraz gozatu ahalko duzu.

26,9 km	Gurutzatu Varsovia kalea. Errepidea pasatutakoan, hartu pista. Bira egin eskuinera eta gero ezkerrera, Elorriaga kalera iritsi arte. Jarraitu seinaleak. Ez duzu galtzeko arriskurik.
27,4 km	Brusela hiribidea zeharkatu bezain laster, igo bunker zahar batetik, berau inguratu ezazu eta jaitsi Salburua auzoko etheen artetik.
28 km	Bidegurutzea. Juan Carlos I.a etorbidea. Bira egin eskuinera Salburuko parkearen sarrerara iritsi arte.
28,4 km	Parkean sartu eta berehala hartu ezkerrearen dagoen bidea.
29,1 km	Bira egin eskuinera.
29,5 km	Bira egin eskuinera.
30,4 km	Eratzun berdearen seinaleak jarraituz, bira egin ezkerreara. Jarraitu zuzen. Fernando Buesa Arena pabiloia ikusiko duzu parean.
30,8 km	Ibilbidearen amaiera. Ataria zentroan atsedean hartu eta ikuspegi zoragarriak ikus ditzakezu "airean" dagoen behatokitik.



SALBURUA

Salburua Euskadiko hezegune kontinentalik baliotsuenetakoa da, **SNazioarteko Garrantziko Ramsar Hezegunea eta Batasunaren Garrantziko Lekua (BGL)** Europako Natura 2000 Sarean. Kokagune hau lehortu egin zen, lursaila laboretarako aprobetxatu ahal izateko. Hala ere, 1994an Gasteizko Udalak berau berreskuratzeke lan nabarmenak egin zituen eta, horiei esker, Salburuak aberastasun natural eta biologikoa arnasten du berriz. Aintzira nagusiak inguratu eta lotzen dituzten ibilbide anitzen bidez parkeko 200 hektareak zeharkatu ditzakezu.

Salburuko hezeguneen funtzio nagusietako bat, ezezaguna izan arren, Arabako hiriburuaren lur azpian dagoen **Kuaternarioko akuiferoaren urak garbitzeko** gaitasuna da. Halaber, flora eta faunaren aniztasun garrantzitsuari esker, lekua era naturalean birkolonizatu da. Salbuespen bakarra parkeko landaretza kontrolatzeko sartu zen orein taldea da. Hemen elkarrekin bizi diren espezieetako askok mehatxuren bat jasaten dute. Bisoï europarra da nabariena, munduan mehatxu maila handienetakoa duen haragijalea baita. Hori dela eta, animalia hau zaintzea parkearen helburu nagusietako bat bilakatu da.

Baina hezegune honek herritarren maitasuna jaso badu, hegazti mordoak ikusi eta ezagutzeko ematen duen aukeragatik da. **Migrazioen ibilbide erdian** kokatzen da, estrategikoki, eta, beraz, espezie askok Salburua erabiltzen du atseden hartzeko, kumeak egiteko edo elikatzeko. Lertxun gorria, mokozabala, ur benarriza edo udako zertzeta dira hezegune hauen bisitari ohikoenetako batzuk.



LEKU INTERESGARRIAK



NATURA ETA PAISAIA

1. Salburuko hezeguneak
2. Zadorrako ibai korridorea
3. Zabalgana parkea
4. Armentia basoa
5. Gasteizko Mendiak
6. Olarizu

Inguruan:

- San Tomas ibaia, Dulantzi eta Errekaleor



KULTURA


1. Atxako aztarnategi arkeologikoa
2. Erromatarren termak Arkaian
3. San Prudentzio basilika, Armentian
4. Armentum parke arkeologikoa, Zabalganan. Erromatarren galtzada.
5. Hirian: Santa Maria katedrala, Erdi Aroko hirigune historikoa, Museoen sarea




AISIALDIRAKO GUNEAK

1. Ataria zentroa
2. Olarizuko etxaldea
3. Gamarrako kirol gunea
4. Aisialdirako gunek Salburuan eta Armentian

MAPA



IBILBIDEAREN PROFILA



FITXA TEKNIKOA

Nola heldu: Salburuko interpretazio zentroa: Ataria
Distantzia, guztira: 30,8 kilometro
Iraupena, gutxi gorabehera: 2 ordu eta erdi

Zailtasuna: Txikia
Gomendatutako bizikleta: Paseokoa
Desnibel metatua: 220 metro

EZ GERATU IKUSI GABE...



ATARIA

Pinuzko zutabe izugarriak eta kristalezko hormak dituen talaia honek, Salburuko parkerako sarbide nagusia denak, txundituta utziko zaitu, bai duen egituragatik, bai **31 metro** luze den behatokiak eskaintzen duen ikuspegi ikaragarriagatik, urmaeletatik **8 metroko altueran**.

Ataria, Salburuko hezeguneen interpretazio zentroa, Gasteizko Ingurumen Gaietarako Ikastegiaren menpe dago eta bi altueratan banatzen da. Ikuspegi zoragarriak eskaintzeaz gain, zentro ospetsu honek hainbat aukera ematen

ditu: **urrutiko kontrol baten bidez konektatuko bisorea** erabil dezakezu hezeguneen bihotzak ezagutzeko; **eratzun berdeko** ibilbideei buruzko informazioa jaso dezakezu; egiten diren **erakusketak** bisita ditzakezu; **kafetegian** atseden har dezakezu; **dibulgazioko tailerretan** parte har dezakezu edo etxeko txikienei ingurumenerako konpromisoaren berri eman diezaiekezu, horretarako egokitutako **haur espazioaren bidez**. Horixe da, hain zuzen ere, ibilbide onen hasiera eta amaiera.